

Euskal Herriko lesbianek III. Topaketak egingo dituzte datorren astean Bilbon

Toleratuak ezik errekonozituak izan nahi duten lesbianak mugimendua aztertuko dute

Hamarkada bat beranduago Euskal Herriko Lesbianen III Topaketak egingo dituzte abenduaren 6tik 8ra bitartean Bilbon. 'Lesbianak edonon' lemapeko topaketak xede bikoitza du: emakume lesbianen topagune bat sortzea eta lesbiana taldeen autoazterketa egitea.

Gorane Agirre / Bilbo

LESBIANEN II Topaketak egin zituztenetik hamarkada luze bat igaro dela eta, aldaketak aldaketa, edizio berri bat antolatu du Euskadiko Lesbiana Kolektiboen Federakundeak. Topaketok Txurdinagako Institutuan egingo dituzte eta hiru eguneko iraupena izango dute, abenduaren 6tik 8ra arte.

Lesbianak edonon lelopeko jardunaldiek helburu bikoitza daukatela azaldu zuen Asun Garcia Federakundeko ordezkariak. Batetik, lesbianen asanblada eta kolektiboen egungo egoeraren azterketa sakon bat egitea; bestetik, emakume lesbianen topagune bat sortzea, non hiru egunetan zehar tailer, mahainguru, festa, protesta ekitaldi eta abar egingo dituzten.

Horrela, III Topaketa horietan zehar zazpi tailer ezberdin izango dira: sexu dibertigarria; autodefentsa; heresia lesbiana; internet; plazerra eta G puntua; ipuin lesbianoak eta autoezagutza.



Lesbianen kolektiboak Donostian egindako protesta ekitaldia.

ARTXIBOKOA

Era berean, lehenbiziko bi egunetan hiru mahainguru egingo dituzte: agerpena, lesbiana eta hedabideak, eta antolaketa eta mugimendu lesbianoa. Mainguruon helburua emakume lesbianen partaidetza eta hausnarketa sustatzea dela azaldu zuen Garcia.

Agerpena emakume lesbianen «bete gabeko ikasgaia» dela adierazi zuen Graciak, azken 25 urtetan esparru horretan zenbait urrats eman badira ere. Aurrepausuak aurrerapausu «nahikoak ez direla» azpimarkatu zuen; «emakume lesbianeie oraindik

nondik ibili gelditzen zaigu emakume heterosexualen mailara iristeko».

Ildo horretan, Maria Rosa Partearroyo Federakundeko kideak zehaztu zuenez, «azken urteotan emakume lesbianek toleratuak izatea onartu dugu, baina gure xedea toleratuak izatea ezik errekonozituak izatea da».

Mahai gainean jarriko duten beste gai bat hedabideena izango da. Bertan emakume lesbianetaz komunikabideetan eman behar duten irudiaz eta diskurtsoaz eztabaidatu eta berauek diseinatu dituzte. Era berean, hedabi-

deetako bereziki telebistarekiko izango duten jarreraz hausnartuko dute; izan ere, zenbait programetan parte ez hartzea erabaki baitute jada.

Azkenik, Euskal Herriko lesbianen mugimendua, antolatze-ko modua eta lana aztertuko dituzte, beti ere, kolektiboaren «lehena, oraina eta etorkizuna» aintzat hartuz. Garciak adierazi zuenez, «batez ere oraina eta etorkizunari nola heldu aztertuko dugu. 2000 urteko lesbianak izateko egungo egiturak eta diskurtso politikoak berraztertu behar ditugu». X

Gipuzkoa eta Bizkaiko Gizartekintza diputatuek Gizarte Gaietarako sailburuordea kritikatu dute

■ Pobreziaren kontrako konpromezuak «uneoro» bete dituztela diote

Erredakzioa/Donostia

INMACULADA LOROÑO eta Juan Maria Bandres Bizkaia eta Gipuzkoako Gizartekintza diputatuek gogor kritikatu dute Jesus Loza Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietarako sailburuordeak Diputazioek euren konpromezuak betetzen ez dituela esanez egindako adierazpenak. Bizkaiko eta Gipuzkoako Gizartekintza sailetatik azpimarratu dute administrazio foralek «zorrozki» betetzen dituztela Pobreziaren Kontrako Borroka Planean euren gain hartutako erantzunkizun eta konpromezuak.

Komunikabideetara bidalitako prentsa-oharrean gogoratu dutenez, Larrialdi Sozialerako laguntzak zenbatekoak izango diren Eusko Jaurlaritzak zehazten du urteroko aurrekontuetan. Programa aurrera eramateko, baina, Jaurlaritzak eta Diputazioek elkarlan akordioa sinatzen dute urtero. Akordio horretan zehazten da Gizarte Gaietarako sailordetzak hartuko dituela bere gain ordainketak eta foru erakundeek planaren gestioaz arduratuko direla, eta X

